




Sagarrondoak, Astigarraga Sagardotxea museoan. JON URBE / ARGIAZKI PRESS

SAGARRONDO BERRIAK LANDATZEN

Sagarrondo berriak aldatzen ari dira Gipuzkoan, eta datozen urteetan sagasti berri ugari izango direla aurreikusten da.

Jatorri izena lortzeko bidean sagardoaren sektoreak egindako ahaleginak eraginda eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta, sagasti berriak aldatzen ari dira Gipuzkoan, eta aurreikusten da datozen urteetan sagasti berri dezente izatea, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak jakinarazi duenez.

Horrez gain, egungo sagastietan ere hobekuntza planak egin nahi dira. «Honen guztiaren helburua da bertako sagarrez egitea bertako sagardo guztia etorkizun hurbil batean. Protektu horretarako sagastiak jarri nahi dituzten eta lurak dituzten baserriarren beharra ere bada, lur eremu dezente eta guztion lana beharko baita helburu hori betetzeko».

Bertako sagarrarekin lan egin-



Egungo sagastietan hobekuntza planak egin nahi dira. JON URBE / ARGIAZKI PRESS

da, kalitate handiko sagardoa lortzea da asmoa. «Sagar motak ondo ezagutzen direlako batetik, eta bertatik bertara ekoiztuta kontrola askoz eraginkorragoa delako bestetik».

Baina, horrez gain, bertako ekonomia ere bultzatu nahi dute,

bertako baserrietan sagastiak jarri eta bertako baserriak negozio bide berriak zabalduta.

Sagarrondoak landatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak diru laguntzak ematen ditu, eta laguntza tekniko ere eskaintzen du.

Sagarrondoak sagarrak bi urte-tik behin emateko joera du berez, baina nabarmentzekoa da sagastia ondo lantzen ari diren sagardozale eta sagarzalak uzta nahiko orekatuak ari direla lortzen urtero. «Helburua izango da ahalik eta sagastirik gehienak txukun zaindu eta bide horretan sartzea, sagarraren kalitatea ez ezik kopuruz ere uzta orekatuagoak lortuz joateko».

PLANIFIKAZIOA ETA AZTERKETAK

Sagastien zainketan ez ezik, sagastien planifikazioan ere aldaketak egiten ari dira azken urteetan. Sagar motak nahasian aldatu beharrean, sailka aldatzen dira, horrela kontrola eta bilketa sagar mota bakoitza aparte hartuta egin ahal izateko. Halaber, sagarren inguruan eta sagar mota bakoitzak ematen duen sagardoaren inguruan azterketak egin dira azken urteetan, eta bide horretan jarraituko da aurrerantzean ere.

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hauak:
www.sagardotegiak.com
www.gipuzkoa.eus

SETIEN sagardotegia



XII. sagardo txalpelketako sariduna

Oztaran bailara, 11
Gurutze Berri etxea
Tel.: 943-55 10 14 • URNIETA

GOIKO LASTOLA SAGARDOTEGIA



943-55 32 72 / 620 783 529 • EREÑOTZU AUZO • HERNANI



oialume zar
sagardotegia

www.oialumezar.com

Mikel Arozamena 16, ASTIGARRAGA tel. 943 55 29 38

Sagardo botila
urte osoan
salgai

LARRE-GAIN

Tolare - Sagardotegia



943-55 58 46 • 616-28 78 67

LARRE-GAIN BASERRIA • EREÑOTZU • HERNANI